

MARIANO BARRENETXEA (1937-2006)

Lehengo maiatzaren 23an gaixoaldi luze eta gogor bat jasan ondoren eta honen eraginez hil zen Jose Mariano Barrenetxea Gutierrez musika jolea eta ikertzaile galdakoa. Euskal herri musikan eta bereziki albokaren inguruan horrenbeste egin duen bultzatzailea handi honen galera ez da erraz ahaztuko eta ordezkatu.

Mariano 1937ko maiatzaren 4ean, Galdakaon jaio zen. Umetatik izan zuen musikarako joera eta zaletasuna. Aita, koplaria zuen. Solfeoa ikasi zuen, eta honekin batera oboea eta txistua jotzen hasi zen. Txistulari eta dantzari modura urteak eman zituen bere herriko Andra Mari dantza talde ezagunean. 1960.an hasi zen alboka jotzen eta ikertzen. Ordura arte, Jesus Larrearen eta Manuel García Matosen artikulua garrantzitsutik aparte ez zegoen albokaz ia ezer idatzia.

Marianok, bazter guztiak arakatu, albokari buruz ahal izan zuen guztia ikasi zuen: tresnaren zatiak, koplak, piezak... Marianok hainbat leketan jo zuen alboka, panderojotzaile gisa Erromualda Zuloaga zuelarik. 1967 eta 1968.an albokarien batzarrak eratu zituen. Alboka irakasle ere izan zen, txistu eta dantzakoaz gain.

Berak idatzitakoek duintasuna ekarri zioten albokari, bazterretik atereaz eta gizarte mailan interesa piztuaz:

Folklore Vasco. Andra Mari (1963)
Alboka. Entorno folklórico (1976).
"La Alboka". Cuaderno de Sección Folklore: Eusko Ikaskuntza (1983)

La alboka y su música popular vasca (1986)

Aclaraciones sobre la alboka (2000).

Hauetaz gain, txistuari buruzko lana argitaratu zuen "Apuntes sobre el txistu" (1984).

Aipagarria ere bada alboka musikaren lehenengo diskoa berak grabatu izana (nahiz eta aurretik albokako beste grabazioak eginda zeuden):

Alboka. Bailables vascos. (1967)
CINSA-126. Erromualda Zuloagarekin grabatutako alboka diskoa.

Erdi senide zituen Igorreko Elezkanotarrak. Marianoren aitaren arreba, Bernardo Elezkanorekin ezkondu zen.

Bernardoren anaietan izan da dantzari, panderojotzaile, koplakantari, dultzainero eta albokaririk: Jose Anton, Benito, Jose eta aparteko albokariak izan ziren Tiburtzio eta Silbestre, "Txilibrin". Hauek alboka jotzen amaren nebarekin, Zaratamoko Inazio Urbari "Andaluze" zenarekin, ikasi zuten.. Marianok, Tiburtzio eta Txilibrin lau urte zituela ikusi zituen lehen alboka jotzen eta bost urte zituela, Artxanda mendiko erromerian Zeberrioko Graziano Lekue "Txisperue"



albokari ezagun eta trebea alboka jotzen ikusi zuen.

Aipatutakoak ez ezik, bizirik zeuden albokari tradizional guztiak ezagutu zituen: Galdakaoko Alejo Gurtubai "Barberue" eta Juan Otsandio; Zeanuriko Jose "Muñegi" Amundarain, Andoni Goikoetxea eta Emilio Sagarna; Arteako Jose Mari eta Leon Bilbao; Bediako "Jitano" Aiesta; Lemoako Benito Iragorri eta Pontxo Orue; Gorozikako Florentzio Egiarte; Dimako Luziano Langara, Leon Artabe, Juan Lekue eta gaur egun bizi den albokari tradizional bakarra den Eujenio Etxebarria. Zegamako Antonio eta Patxi Gorrotxategi, azken albokajole gipuzkoarrak ere ezagutu zituen. Lan ugari argitaratu bazituen ere, gauza asko utzi zituen atera gabe. Paperean daudenetik aparte, 15 inguru albokari tradizional jaso zituen kasetetan.

Mariano Barrenetxea gaur egungo albokarientzat zubi garrantzitsua izan da.



Alboka. Bailables vascos. (1967ko diskoaren azala)

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udazkeneko kontzertua

2006ko urriaren 28an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Iruñeko Udal Txistulariak

Iruñeko Udal Txistu Banda 1942.an sortu zuen bertako Udalbatzak, bainan mendetako tradizio luzea zegoen horren atzetik. Udal Artxibategian badago Sanferminetako festak flauta eta danbolinez alaitzen zuten musikari ugariren berri XVII mendetik aurrera. Gaur egungo Udal Txistulari taldeak tradizionala den osaketari eusten dio, hau da: bi txistu, silbotea eta atabala. Taldeak halere bost kide dauzka 1974.tik aurrera, bere betebeharreri hobeto ekiteko Gaur egun: **Miguel Tollar Zarantón, Alejandro Martínez Olazarán, Mikel Aranburu Urtasun, Fermín Garaikoetxea Aranburu** eta **Alejandro Martínez Arana**.

Udal txistulariek Iruñeko nortasuna mantentzen laguntzen dute eta oso presente daude hiriaren bizitzan, urtero ia 80 emanaldi eskeintzen dutelarik ohizko programazioan.

Igandeetako alboradak, udakoetan ezik beste igande guztietan egiten dira, goizeko 9retan hasita. Bereziki alde zaharrean egiten dira baina auzo guztietara iristen dira aitzaki batekin edo bestearekin. Diotenez mezu nagusia iragartzea zen ohitura zahar honen zioa.

Gaztelu plazako atsaldeetako dantzaldiak,

udaran zehar ospatzen dira. Bertan txistuak bere jatorrizko funtzioa berreskuratzen du, herri dantzarako musika egitea alegia, nahiz eta, gaur egun, kutsu foklorikoagoa izan. Dultzaineroekin txandakatuz egiten dira saio hauek, bi orduz, astearte eta ostegunetan.

Udalbatza laguntzea bere joan etorri ofizialeetan, da talde honen izaera errepresentatiboagatik lehenbiziko betebeharra eta garrantzitsuena. San Fermin eta San Saturninoren prozesioetan gauzatzen da eginbehar hau.

Aipagarriak ere badira udalerriko bizitzan uztailak 6an txupinazo ondoren egiten duten kalejira eta Aralarko San Migelen harrera ekitaldia.

Bere udal izaeragatik badira emanaldi haueztaz gain beste batzuk Udalak berak eskatu ditzakeenak urtean zehar eta Banda saiatzen da horiek betetzen. Kanpora ere joaten dira, urtero Tolosako Sanjuanetara (Tolosako txistularien Sanferminetarako bisita bueltatuz) adibidez. Holako bidai gehienak Euskal Herriaren barnean egiten badira ere Santiago de Compostela, Sevilla, Hannover, Gloucester, Dublin, Manchester edo London talde hau ezagutu duten herriak dira.



21 BOTOI

akordeoi diatonikoen bikotea



Marinette Bonnert, belgiarra eta **Pere Romani**, katalana, Vienan, elkar ezagutzeaz gain musika bikotea osatu zuten. Toki egokia zen horretarako, bertan asmatu baitzen akordeoi diatonikoa, 1829.an. Botoidun soinu-tresna txiki hark oso ondorengo ezberdinak izan zituen: botoidun edo tekaldun kromatikokoak, kontzertinoak, bandoneona... Oso azkar zabaldu zen eta horrela, gaur egun, aurkitu ditzakegu tresna honen tradizioak Portugalen, Frantzian, Italian, Euskal Herrian, Ingalaterran, Austrian, Belgikan, Katalunian, ... **21 botoi** bikotean horietako bi tradizio batzen dira, musika giro ezberdinetan "hazitako" bi soinu-tresna ia berdinen bidez. Oso eroso dabilta elkarrekin Kataluniako erreperetoria (marxes, jotes, xotis, rumbes) eta Belgikakoa (anglaise, schottische, chapeloise), bidean topatutako beste kultura musikalak (Frantzia, Italia, Euskal Herria) uztartuz eta bikoteak berak, beti era tradizionalen, sortutakoak ahaztu gabe. *21 botoi, 21 botons, 21 boutons* edo *21 Knöpfe* dira taldearen izenak kontzertuak eman

dituzten herrialdeen arabera.

Marinette Bonnert, 1977an jaioa 12 urtekin hasi zen akordeoia jotzen, Louis Spagna irakasle zeukalarik. Berarekin ikusi zuen musikari eta dantzarien arteko harremanen garrantzia, geroago dantzaren munduan sakonduz. 20 urtekin musika valoniar-rari ekiten dio. Akordeoia erakustez gain, kontzertuak eman, dantzaldi folkak, dantza ikustaldiak antolatu eta musika eta dantza ikastaro eta jardunaldiak programatzen ditu. Garatu duen estiloa dantzaren inpultsoen integrazio musikalean eta sentsibilitate melodiko handian dago oinarrituta.

Pere Romani, 1981.an Bartzelonan jaioa, musika mota ezberdinetan hezitua dago: aintzinekoa, klasikoa (pianoa, moko flauta, kantua) eta tradizionalen (akordeoi diatonikoan "Mestre instrumentista tradicional" tituloa). Hainbat musika taldeetan aritzeaz gain, bakarlari gisa ere badabil. Konpositorea ere bada eta musika tradizionalerako zenbait ikuskizun moldatu du, bereziki, soinu-tresnak eta

abesbatzak uztartuz.

Udazkeneko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:





HM ESKOLAKO IKASTURTE BERRIA MARTXAN

Urriaren lehen astean martxan jarri dugu Oiartzungo Herri Musika Eskolaren 2006-2007 ikasturtea.

Aurrekoan bezala lau dira eskola honetan eskaintzen diren gaiak: txalaparta, alboka, dultzaina eta herri perkusioa.

Orain arteko emaitza onak bere horretan jarraituko dutelakoan, musika jole trebeak ez dira faltako gure inguruko herri festetan.

ALBOKARIEN HERNANIKO 13. TOPAKETA

Lehengo irailaren 23 eta 24ean ospatu ziren Hernanin Albokarien 13. Topaketak egitarau zabal batek osaturik. Aurtengo edizioa maitzatan hil zen Mariano Barrenetxearen omenez egin da eta bere obra presente egon da ekitaldi honetan.

Goiko argazkian ikus dezakezuenek musika ez zen falta kalean eta giro ezin hobea sortu zen Hernanin zehar.

HM TXOKOA

KILOMETROAK 2006.an

Urteroko Gipuzkoako Ikastolen festa nagusia aurten Oartzunen ospatu da. Urriaren batean eta eguraldi ezin hobegoarekin Kilometroak 2006 edizioak arrakastatsua izan zen, milaka ibiltari euskaltzale gozatu zuten Oiartzungo zirkuitoan eskaintzen zen mota anitzeko ekintzetaz. Milaka izan ziren ere bai Herri Musikaren Txokoak bertan jarritako erakusketa txikietatik pasa zirenak. Egun osoan aritu ginen inguratutakoei soinutresnak erakusten, azalpenak ematen eta nola ez ba horrekin batera gure soinu-tresnekin musika jotzen festa iraunkorra antolatu genuen.

HM 5. Jardunaldiak

Aurreko buletinean azaldu genuen bezala, azaroaren 25 eta 26an "Panderoaren inguruan" izendutako HM 5. Jardunaldiak ospatuko ditugu.

Egun batzuk aurretik Jardunaldien behin betiko egitaraua eta bestelako informazioa zabalduko dugu.



BISITARI KOPURUA

Ekaina: bisitari kopurua: 274

Antolatutako taldeak: 11

Uztaila: bisitari kopurua: 247

Antolatutako taldeak: 11

Abuztua: bisitari kopurua: 76

Antolatutako taldeak: 6

Iraila: bisitari kopurua: 84

Antolatutako taldeak: 5

Bisitari kopurua ekainera arte: 12.767

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

